

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 313/2021 Erabakia, maiatzaren 25ekoa. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeentzako laguntza lerroari, obra txikiak gauzatzeko 2022eko programaren barruan

Ekainaren 27ko 21/2013 Foru Arauak auzo harremanak sustatzeko ekimenetarako eta Arabako toki erakundeetan obra txikiak egiteko laguntza programak arautzen ditu.

Foru arau horren III. tituluaren obra txikiak egiteko programaren inguruko xedapenak ezartzen dira, bai eta horrelako laguntzak emateko arauak eta irizpideak ere.

Programa hori Arabako Foru Aldundiaren aparteko tresna bat da, lurralde historikoko toki erakundeei finantzaketan laguntzeko; funtsaren helburua da laguntzak ematea Arabako toki erakundeetan egin beharreko 35.000,00 euro baino gehiago ez diren inbertsioak finantzatzeko.

Ondorio horietarako, eta Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua ezarriz, onespena eman behar zaio Obra Txikiak Gauzatzeko 2022ko Programaren barruan Arabako toki erakundeei emango zaizkien laguntzak arautzen dituen deialdiari.

Deialdia idazteko, kontuan hartu da Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Legeak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak ezarritako arau esparrua.

Era berean, eta Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauaren 7.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, kontuan hartu da euskararen erabileraren faktorea Arabako Foru Aldundiak onetsitako hizkuntza normalizazioko politikaren esparruan, eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen arabera.

Horregatik, Lurralde Oreaken Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei laguntzak emateko deialdia, Obra txikiak gauzatzeko 2022ko Programaren barruan emango diren laguntzena, alegia.

Bigarrena. Arauketa.

Programa ekainaren 27ko 21/2013 Foru Arauak III. tituluaren xedatutakoaren arabera dago araututa. Horiek horrela:

1. Erakunde onuradunak

Laguntza programa honen onuradun izan daitezke 21/2013 Foru Arauaren 16. artikuluan jasotzen diren erakundeak.

Ezin dira onuradunak izan Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak IV. tituluaren adierazitako arau hausteren bat dela-eta zehatu diren erakundeak, ez eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak jasotako egoeretan daudenak ere.

2. Diru hornidura

Hasierako finantza hornidura kuantifikatuta dago Arabako Foru Aldundiaren 2022rako aurrekontuan berariaz edo era osagarrian obra txikien/auzolanen gauzatzea finantzatzeko jasotzen diren partiden hasierako esleipenen batura bezala. Zenbateko horiek handitu ahal izango dira beren hasierako horniduraren ehuneko 50era arteko kopuruaz.

Dirulaguntzak emateko, ezinbestekoa izango da partidan kreditu erabilgarria egotea.

3. Eskaerak aurkezteko epea eta modua

Eskaerak aurkezteko epea deialdia ALHAOn argitaratu ondorengo egunean hasi eta 2021eko uztailaren 8ko 23:59an amaituko da.

Eskaerak aurkezteko epea bukatu baino lehen, toki erakunde bakoitzak erabakia hartu beharko du, bere antolaketa eta funtzionamendu araubidearen arabera, eskatzen dituen obra eta zerbitzuei buruz.

Eskaerak hemen aurkeztuko dira:

- Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean.
- Foru Ogasunak Gasteizen, Guardian eta Laudion dituen bulegoen erregistroan.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4. artikuluan jasotzen dituen erregistroetatik edozeinetan.

Hala ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, nahitaez aurkeztu behar dute telematikoki aurkeztu beharrekoa, berariazko izapidearen bidez, egoitza elektronikora jota <https://egoitza.araba.eus/eu/-/obras-menores>, pertsona juridikoek, nortasun juridikorik gabeko erakundeek, elkargo bateko kide izatea eskatzen duen jarduera profesionalean dihardutenek eta jarduera hori gauzatzean egiten dituzten izapideetarako, eta administrazioarekiko harremanak elektronikoki egitera behartuta dagoen interesdun baten ordezkariak.

Eskaerarekin batera, egin beharreko obren aurrekontu xehatua (kostua eta BEZa zein bere aldetik adierazita) aurkeztu behar da. Hirigintza arloko aholkuak ematen dituen udal teknikariak proiektuaren beharra egiaztatzen badu (eskaera inprimakiarekin batera dagoen "Proiektuaren beharraren ziurtagiria / Hirigintza txostena" inprimakian), obren aurrekontua edo balioespina aurkeztu beharrean, obrak egikaritzeko proiektu teknikoa aurkeztu beharko da, non orobat jaso beharko baitira Eraikuntzaren Kode Teknikoaren 1. eranskinean finkatutako agiriak eta edukiak. Eranskin hori Eraikuntzaren Kode Teknikoa onesten duen martxoaren 17ko 316/2006 Errege Dekretuak onetsi zuen.

Hirigintza arloan aholkularitza ematen duen udal teknikariak egiaztatzen badu (eskaera inprimakiarekin batera doan "Proiektuaren beharraren ziurtagiria / Hirigintza txostena" inprimakian) arloan arloko eraginak daudela, eskaerarekin batera toki erakundeak erakunde eskudunari egindako eskaeraren kopia aurkeztu beharko da, eskatutako obrako autorizazioa emateko, baimena emateko edo aldeko txostena emateko. Dokumentu hau aurkezteko epea laguntza deialdira aurkezteko eskaeraren berbera da.

Hirigintza arloan aholkularitza ematen duen udal teknikariak adierazten badu (eskaera inprimakiarekin batera doan "Proiektuaren beharraren ziurtagiria / Hirigintza txostena" inprimakian) jardun xede den ondasunak katalogazio edo babes motaren bat duela, bai eta ustezko arkeologia eremuetan jardun nahi dela adierazten bada ere, eskaerarekin batera organo eskudunari aurkeztutako txostenaren eskaeraren kopia aurkeztu beharko da (AFAko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua, hirigintza arloko udaleko aholku teknikaria, AFAko Museo eta Arkeologia Zerbitzua). Dokumentu hau aurkezteko epea laguntza deialdira aurkezteko eskaeraren berbera da.

Bidenabar, jarduna zoladura jartzeko baldin bada edo jardunaren barruan zoladura ere jarri beharra sartzen bada, aurkeztutako aurrekontua edo balioespena behar bezain zehatza izan beharko da, zenbat metro koadroz ari garen jakiteko eta zer material erabiliko den ere jakiteko.

Hauexek izango dira, 2022ko ekitaldirako, 21/2013 Foru Arauaren 18.1.b artikulua aipatzen dituen moduluak:

- Aglomeratu asfaltikoa: 35,20 euro/m².
- Hormigoia edo besterik: 44,92 euro/m².

Bidali beharreko agirien bolumena 10 MB baino gehiago bada, Arabako Foru Aldundiaren erregistro orokorrean edo horrekin hitzarmena izenpetuta duten toki erakundeetako erregistro orokorretan aurkeztu ahal izango dira, bai eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak eta Arabako Foru Aldundiaren Agirien Erregistroen Erregelamendua onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 3ko 37/2011 Foru Dekretuak xedatutako eretan ere. Era berean, euskarri magnetikoan (CD edo antzekoa) edo paperean aurkeztu ahal izango dira.

Eskaerak osorik bete ezean edo oinarri hauetan adierazitako agiriren bat falta izanez gero, interesdunari eskatuko zaio falta diren datuak eta agiriak aurkezteko hamar eguneko epean, eta jakinaraziko zaio epealdi horretan agiri edo datu horiek aurkeztu ezean, eskaerari uko egin diola ulertu ahal izango dela, eta eskaera artxibatu ahal izango dela, horretarako eskumena duen organoak ebazpena eman ondoren.

Aurreko oinarrian ezartzen diren ondorioetarako, osorik ez dauden eskaerak ez aurkeztuzat joko dira eskaria erabat zuzendu arte.

21/2013 Foru Arau horren 17. artikulua 5. apartatua ezarritakoaren arabera, ezingo da eskatu laguntzarik Lurralde Oreka Sailak kudeatzen dituen beste laguntza programa batzuen 2022rako deialdietan eskatu ziren obretarako, eta, batez ere, Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren 2022-2023ko deialdiaren barruan eskatu ziren obretarako.

4. Obren tipologia

Zein jardun gauzatzeko eman daitezkeen laguntzak: 21/2013 Foru Arauaren 17. artikuluan jasota dauden izaera dutenak.

Baldin 17. artikulua horren apartatuak aipatzen dituen jardunak gauzatzeko organismo eskudunen baimena eta/edo aldeko txostena behar bada, jardunari ekin baino lehen eduki beharko da.

Proiektu teknikoa behar izanez gero, eskatzen den obraren jarduna bakarrik jaso beharko da proiektu tekniko horretan. Ez da aurkeztuzat joko proiektu bat, baldin eta jardun zabalago batzuei badagokie eta eskatutakoa haien zati bada.

Eskatutako jarduna "Hornidura edo saneamendu sareak partzialki konpontzea, antzemandako gabezien ondorioz" epigrafean jaso bada, orduan honako hauek ere aurkeztu beharko dira:

a) Hautemandako gabeziei buruzko agiriak (konponketen fakturak...).

b) Bestela, horren orde, udaleko teknikari aholkulariaren txosten teknikoa aurkeztu ahalko da, non azalduko diren hautemandako akatsak, haien izaera, garrantzia, antzintasuna eta haren iritziz eskaera aztertzeko interesgarri izan daitekeen beste edozer.

Baldin eta eskatutako jarduna AFaren Errepide Erregistroan sartutako bideetan egin beharreko obretarako bada, AFAko Nekazaritza Saileko Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuak aurrekontua edo agiri teknikoa egingo du, prozedura izapidetzeko txostena egin baino lehen. Gisa horretako obretarako, mantentze edo garbiketara lanak ere sar daitezke, eta salbuespenak akabera zurrunetan (hormigoia edo asfaltoko akaberak) egin beharreko lana sar daiteke baldin eta baldintzak fisikoak (esaterako malda handietan lan egitea) hala eskatzen badute eta hala definituta ageri badira aurkeztutako agiri teknikoetan. Horrez gain, aipatutako Nekazaritza Garapenerako Zerbitzu horrek berriaz gomendatuko ditu horiek, toki erakundeari bidalitako txostenean.

Haien kategoria gorabehera, legez izendatutako arkeologia zonetan jardunez gero, aginduzkoa da Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuaren txostena.

21/2013 Foru Arauaren 17. artikuluko 2. apartatuan ezarritakoaren ondorioetarako, ondasun eta eskubideen titularra dela joko da baldin eta ondasun eta eskubide horiek laguntza eskatzen duen toki erakundearen izenean izena emanda badaude jabetza erregistroan, edo bestela, toki erakundearen Ondasunen Inbentarioan jabe gisa jasota badaude.

5. Laguntzak esleitzeko araubidea eta hautatze irizpideak

Dirulaguntzak esleitzeko araubidea eta aplikatzekoak diren hautatze irizpideak ekainaren 27ko 21/2013 Foru Arauaren 20. artikuluan daude jasota.

Laguntzen deialdiaren ebazpena emateko, emandako epean aurkeztutako aurrekontu ekonomikoan oinarrituz egingo da dirulaguntzaren hasierako kalkulua; aldeak edo akatsak antzeman badira, zuzendu egingo dira. Zuzendu ondoren, emaitza ondorio guztietarako aplikatuko da.

6. Prozeduraren ebazpena eta jakinarazpena

Prozeduraren ebazpena ekainaren 27ko 21/2013 Foru Arauaren 21. artikuluan xedatutakoaren arabera egingo da.

Toki erakundeei indarreko legediarekin bat etorritik jakinaraziko zaie eskatutako obra horiek programan sartu ala kanpoan utzi ebazten duen ebazpena. Ebazpen horrek administrazio bidea amaitzen du.

Toki erakunde onuradunak, berriz, bete egin beharko ditu dirulaguntzak emateko ebazpenaren jakinarazpenean ezarritako baldintzak eta betekizunak.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legean agindutakoaren arabera kontratu txiki bat bada, gutxienez hiru eskaintza aurkeztu beharko zaizkie hornitzaile desberdinei kontratazioaren aurretik, salbu eta ezaugarri bereziak direla-eta merkatuan ez badago eskaintza horiek egiten dituen hornitzaile kopuru nahikorik; kasu horretan, behar bezala justifikatu beharko da erakunde eskatzaileak sinatutako dokumentu batean.

Bat etorritik Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarritzko Legeak ezarritakoarekin, obren esleipendunak hizkuntza ofizial bien tratamendu eta erabilera egokiak bermatu beharko ditu, eskumena duen organoak uste badu kontratuaren xedeak hala eskatzen duela.

7. Obrak egiteko eta agiriak aurkezteko epea

Deialdi honen babesean diruz lagundutako obrak amaitzeko muga eguna 2022ko azaroaren 30a da, eta orobat obrak gauzatu direla frogatzeko agiriak (fakturak, eta hala balegokio, obra ziurtagiri behar bezala onetsiak) aurkezteko; behar adina agiri, hain zuzen, dirulaguntza kalkulatzeko eta haren ordainketa izapidetzeko.

Hala badagokio, horretarako ahalmena duen Lurralde Oregaren Saileko titularrak berriaz onetsi beharko duen justifikazioa aurkeztu ondoren, obraren exekuzioa amaitzeko eta exekuzio hori justifikatzen duten agiriak aurkezteko epea luzatu ahal izango da, 2022ko abenduaren 31ra arte, baina ezingo da data horretatik aurrerako luzapenik eman.

Ordainketaren egiaztagiriak aurkezteko epea 2 hilabete izango da, dirulaguntza ordaintzen denetik aurrera.

Diruz lagundutako jardueraren zabalkundea eta publizitatea, euskarria edozein dela ere (liburuxkak, kartelak, argitalpenak...), bi hizkuntza ofizialetan egin beharko da.

8. Dirulaguntza bat baino gehiago aldi berean

Gertatuko balitz "Obra txikiak egiteko" laguntza programaren kontura diruz lagundutako jardun bat aldi berean beste dirulaguntza batzuekin ere finantzatzea, 21/2013 Foru Arauaren 24. artikulua horretarako xedatutakoari jarraituko zaio.

9. Dirulaguntzak errebokatzea eta itzultzea

Funtsezkoak dira dirulaguntzak emateko eta benetan jasotzeko ezarri diren baldintzak; hortaz, bete ezean, guztiz errebokatuko dira, eta itzuli egin beharko dira jasotako kopuruak, eta, hala badagokio, aurre egin beharko zaie dirulaguntzak arautzen dituen foru araudian aurreikusitako erantzukizunei.

Hirugarrena. Lurralde Orekaren Saileko foru diputatuari ahalmena ematea aipatutako obrak izapidetzeko eta egiteko zenbanahi agindu eta xedapen emateko, bai eta dagozkien aurrekontu partidek hartarako aukera ematen dutelako gerorako emakidak onesteko ere, betiere prozedura ebazteko kide anitzeko organoak proposatutako lehentasun hurrenkera zainduz. Era berean, ahalmena izango du izan litezkeen itzulketak eskatu eta baliogabetzeko.

Laugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Bosgarrena. Erabaki hau behin betikoa da administrazio bidean eta bere aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik aurrera. Hori guztia bat etorritik Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko maiatzaren 25a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua

IRMA BASTERRA UGARRIZA

Lurralde Orekaren zuzendaria

JESÚS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA